



**LEGAZPIKO
UDALA**

Legazpiko Udaleko Gobernu Batzordeak 2018ko maiatzaren 28an eginiko ohizko bileran, aho batez, akordio hau hartu zuen: "Bidezkoa bada, SUBELTZA kolektiboarekin musika-lokalak lagatzeko hitzarmena sinatzea onartzea"

Lagapen-hitzarmenaren eranskinean jarraian agertzen den Bikuñako Musika Lokalen erabilera- eta funtzionamendu-araudia jasotzen da.

BIKUÑAKO MUSIKA LOKALEN ERABILERA- ETA FUNTZIONAMENDU-ARAUDIA

Lokal hauen kudeaketa lanak SUBELTZA Gazte elkarteak hartuko du, Udaleko Gazteria zerbitzuaren jarraipenarekin.

Lokaletan entseatzeko eskaera egiten duten talde guztiek onartu eta bete beharko dute erabilera araudia.

Entsegu lokalak erabiltzeko baldintzak:

- a) Taldeko partaideen 2/3ak legazpiarrak izatea.
- b) Musika instrumentuak izatea.
- c) Lokalen erabilera araudia onartzea eta berau beteko dutenaren seinale, baieztapen-orrria sinatzea (eranskinaren amaieran jasotzen dena).

Eskaerak SUBELTZA Gazte elkarteari egingo zaizkio eta berak erantzungo ditu. SUBELTZA Gazte elkarteak bere aldetik horren berri emango dio Udaleko Gazteria zerbitzuari.

Lokalen eguneroko jarraipena SUBELTZA Gazte elkarteak eramango du aurrera, Gida batzordearen bidez. Gida batzordea osatzen duten pertsonen izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa erraztuko zaizkio udalari eta bestelako musika taldeei.

ERABILERA-ARAUAK

1. Lokalak erabiltzeko interesa duen edozein taldek eskaera aurkeztu beharko du, udaletxean edo SUBELTZA Gazte elkartean. Bertan taldea osatzen duten kideen izen-abizenak agertu beharko dira. Talde bakoitzak bere ordezkaria izendatuko du Gida batzordean parte har dezan. Taldeko kideak aldatuz gero, dokumentazio berria aurkeztuko zaio Gida batzordeari eta honek horren berri emango dio udalari.

2. Lokalen funtzionamenduaren jarraipena Gida batzordeak egingo du, beti ere Udaleko Gazteria zerbitzuaren jarraipenarekin eta horretarako, gutxienez, urtean bitan elkartuko dira (otsailean eta urrian). Dena den, Gida batzordea harremanetan egongo da talde bakoitzak izendatu duen ordezkariekin lokal guztien egoera gertutik ezagutzeko.

3. Lokalen asignazioa Gida batzordearen bidez egingo da.

4. Lokalak musika entseguak egiteko dira eta ezingo dira sartu musikarako erabilgarri ez diren ez altzari ez ezer (telebista, sofa, eta abar). Armairuak sartu ahalko dira bai instrumentuak bai bestelako kableak, eta abar gordetzeko.

5. Lokalak astelehenetik igandera arte erabiltzeko moduan izango dira, eta ordutegia hauxe izango da: 09:00tatik 24:00etara.

6. Entseatzeko orduak lokal bakoitzeko taldeek erabakiko dute.



**LEGAZPIKO
UDALA**

7. Lokal bakoitzeko giltza taldeko partaideek soilik izan ahalko dute. Horrezaz gain, sarrera nagusiko bi ateen giltzak ere izango dituzte. SUBELTZA Gazte elkarteko Gida batzordeak eta Udalak eraikin osoaren giltzen kopia bana izango dute.
8. Dauden taldeak dauden lokalak baino gehiago direnean, lokalak beharren arabera konpartitu beharko dira. Horretarako funtsezkoa izango da bi taldeak ados egotea.
9. Lokalen barruko garbiketa lokal horretako kideek hartuko dute bere gain baita sortzen den zaborra dagokion zabor gunera ateratzea ere. Gida batzordeak inspektzioak egin ahalko ditu. Eszenatokia, eskailerak, pasabideak eta komunak Udalak kontratatutako enpresak garbituko ditu.
10. Nahiz eta Udalaren kontura joango diren energia elektrikoaren eta uraren kontsumoak, talde guztien aldetik, horien kontsumo arduratsua egingo da. Bestaldetik, iraunkortasun-irizpideak ezarriko dira eta, horretarako, hartu beharreko ondoko neurriak hartuko ditu: ahalik eta hondakin gutxien sortuko du, hondakinak birziklatuko ditu, energia-baliabideak aurreztuko ditu, airearen eta soinu-kutsadura murriztuko du eta ingurumen-hezkuntza bultzatuko du.
11. Gune publikoa denez, ezin izango da bertan erre, ezta alkoholdun edaririk edan.
12. Pasabideetan ezin izango da oztopatzen duen ezer utzi.
13. Entseguak amaitzean entxufeak libre geratuko dira, hau da, erregletak itzaliko dira, zirkuitu bakarrak ekiditeko.
14. Bestaldetik, 80 dB gainditzen diren lokaletan erabiltzaileek belarriak babestu egin beharko dituzte.
15. Erabiltzaileei lokalaren larrialdi planaren berri emango zaie eta bertan finkatutakoaren arabera jokatu beharko dute.
16. Gida batzordeak talde bakoitzaren jarraipena egingo du, lokalen erabilera neurtzeko eta ez bada erabiltzen libratu egin beharko da.
17. Ekipamendua modu egokian erabiltzen ez duten taldeek, erabilera araudi hau betetzen ez duten taldeek edo lokalen funtzionamenduari kalte egiten dioten taldeek ezingo dute lokaletan entseatzeko jarraitu. Hala nola, ezingo dira paretak bota, ezta inongo aldaketarik egin lokaletan Udalari baimenik eskatu gabe.
18. SUBELTZA Gazte elkartearen grabazio-gelaren ardura Gida batzordeak izango du. Legazpiko edozein taldeei irekita egongo da eta aipatutako batzordea izango da gela horren kudeaketa aurrera eramango dutenak. Grabazio-gela erabiltzeko eskaerak elkartearen eta udaletxean egin ahalko dira. Erabileraren berri udalari emango zaio urtean bitan elkartearen.
19. Araudia bete ezean, lokaletatik kanpo geratuko da taldea eta erabiltzeko eskubide guztiak galduko ditu.
20. Bozketetan talde bakoitzak boto bat izango du eta asanblada orokorrean lokaleko ordezkariak lokala osatzen duten taldeen botoa eman ahal izango du.